

Rosa Martín Salsaris

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

## 2011ko hauteskundeak

**URRUN DAUDE 2003KO HAUTESKUNDEAK.** Garai hartan alderdi nagusiak *pool seinalea* banatzen hasi ziren; hots, horretarako aurrekontua zuten talde politikoek telebista-produktora bat kontratatu, eta honen unitate mugikorra, kamarak, argiak, mikroak, garabiak... erabiliz, euren ekitaldien emanaldia grabatu eta dohainik telebista guzti-guztietako albistegi-zerbitzuei eman zieten kanpainan zehar. Orduan ikusi genituen, lehen aldiz, plano ezin hobeak, argiztapen biribilak... eta hitzak, musika, eta txaloak... denak ederto nahastuta, kazetariei editatzeko aukera lapurtzeko. Telebista guztiak musu-truk jaso zituztenez alderdi bi haien irudiak eta soinuak, ez zegoen mitinetan sartu beharrik ere. Istilurik edo pankarta desegokirik agertzekotan, kamara batek ere ez zuen hartu.

**2007KO MAIATZEKO HAUTESKUNDEAK** ere urrun gelditu dira. Internet bilakatu zen orduko izarra. Alderdi gehiagok izan zuten *pool seinalea* bidaltzeko diru nahikoa. Eta janzkera eta orrazkera egokia gomendatzen zuen estilo liburua. Mitin ertainak eta txikiak aspaldian desagertuta zeudenez, hautesleek Internetera jo behar izan zuten, blogetan politikarekin –edo– hitz egiteko. Sasoi hartan *Second Life* delako mundu paraleloan jolasten hasi ziren Royal, Sarkozy eta Llamazares, nerabeen SIMs bideo-jokoan bezala, denborapa-



INIGO AZKONA

sa. Hiritar-kazetagitza modan jarri, eta edonork bidal zezakeen huskeria bat edonora, eta argitaratu ere. Hautagai gisa aurkeztu, aldiz, ezin izan zuen edonork.

Identitate-lapurketen aldartea izan zen hura. Chat eta foroetan, ez zinena izateko; *photoshopen*, zinena hobetzeko; posta elektronikoa, zure kuxtako txartelaren zenbakia edonori emateko... *Hoaxa*, engainua, hedatu zen nonahi.

**2011KO HAUTESKUNDE HAUTAN**, berriz, mezuaren berpizkundera gertatu da. Marketin politikoaren helburua botoak norbereganatzea da oraindik, ez ideiak aldarazi edo ekintzara deitu. Baina orain ekintza bakarra botoa ematea da. Sareak ondo daki nor naizen, zein pelikula ikusi nuen igandean, zein egunkari irakurri dudana gaur, zer erosiko dudana bihar eta norekin joango naizen oporretara, zein musika dudana gustuko eta nori ez dizkiodan jada hitz goxoak bidaltzen...

Guzti horrekin nahikoa du niretzat propio tuneatutako hauteskunde-mezua sortzeko. Mezuak *ad hoc*, alderdiak ere *ad hoc*. Nahi beste alderdi, baina gehienak *Second Life*n baino ez.

Zer egin dezake materialismo historikoak, dialektikoak... mundu birtual honetan? Garrantzitsuenak ez da non gauden, norantz joan nahi dugun baizik. ■

◀

Zer egin dezake materialismo historikoak, dialektikoak... mundu birtual honetan? Garrantzitsuenak ez da non gauden, norantz joan nahi dugun baizik

▶

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Era askotakoak ezagutu izan ditut. Egituratuak eta bat-batekoak. Egituratueta, gehienak bat-batean hasitakoak izan dira. Behin hartu, eraman eta inor konturatu ez dela ikusirik jarraitu dutenak. Eramandakoa gutxiegi irizita, era antolatuan ebasteen asmatu zutenak ala bakar batzuk izango dira, denborak ustelaren usaiak salatutakoak baitira gogoan dauzkadanak. Auzoko katekisia, tailerrean, herriko ostatutan. Taldean ere, futbol zelaiko kantinan elkar hartuta asteburuko gastu txikiak egiten zutenak harrapatu izan genituen, klubeko koloreak maite zituzten alprojak. Kontuak orekatzen ez zirenez, ibilbide

## Lapurketak

motza egin zutenak izan ziren betiere. Oraindik orain fama hura dute beren bizkar. Enpresa batzuetan ere, berdin-tsu. Aukera izan balute egingo luketena gehiago izango dira, aho-beroi belarria erne jarri ezker hori ikasten da behintzat. Irungo zergenak luze jo du. Eta horrek nauka harrিতuta. Nola liteke, ez *palaka* eta bai *komatsuka* eramaten ari zirena ezkuta? Hainbeste zordun tartean eta Donostiak deus jakin ez? Gure kasuan, pezeta, libera ala euroa izan, hondar xentimoraino kontrolatuak gaudela erakutsi digu Foru Aldundiak aspalditik. Kontrolatzaileak begipean izatea ahortzi dute. Etxe berekoak izaki, klubaren koloreen alde, omen, ari zirenak. ■